

Gabon-batzeiak

 rain dala urte batzuk, Gabon-batzeian ebitzen hainbat talde agertu geben argazki zaharren sailtxo honetan. Baiña aspalditxuan eztogu holakorik aukeratu. Gabon-giruan gagozenez, Bilbo aldetik heldu barri xakun fotografixa kuriosoa hau aprobaetxaitia gura geuke aruten. Hau be ezta atzo goizekua: berrogeta hamar urte pasa dako, 1948xan agustiñuen komentuko patxiun ataratutak da-eta.

Agiri diran mutikoa eta mutikote gehixenak laterandarren kolejixuan abadetarako ikasten ziharduten, kantore-taldia itxuraketa eta inddarketako dagoen musiko banakak izan ezik. Fotografisia zein garaittakua eta kartelak erakusten doskue garbiasko; bixak erderaz, jakiña, susue haretan euskeraz idatziz ezkero, denuntziaren bat jasoteko arrizku latza egoten zalako. Honei-txek dituztue taldekinen izenak ezkerrekit eskumara:

Zutik: Joxe Luis Erostarbe, *Etxabarrialde*; Iñaxio Lazzanoiturburu, *Kale Zaharrekua*; Alfonso Beltran, asto gaiñian kape-riuen; Joxe Mari Gorostidi, *Eperretxe*, turutiarekin; Iñaxio Ibarrondo, *Plazakua*, tanborrarekin; Tomas Uribeetxbarria, *Santa Marinakua*; Iñaxio Olea, *Ordizikua*; Joxe Luis Blaín, *Kanpantzokua*; Luis Mari Isasmendi, *azkoiittiarra*; Iñaxio Oroben-goa, *naparra*; Pako Gómez, *madriddarra*; Felix Elorza, *mondraguetarra*; Jabier Elorza, *araoztarra*; Iñaxio Galdos, *Murgial-dai*; arpegixa ikusten etxakon bat; Joxe Antonio Gimeno, *naparra*; eta Felix Kortabarria, *Kale Zaharrekua*, saxofoiarekin.

Makurtuta: Joxe Ortiz de Urbina, *arabarria*; Manolo Murua, *Antuena*; Rafael Zulueta, *Heredia*; Joxe Luis Anduaga, *Xo-ruena*; Joxe Mari Gorostidi, *Eperretxe*, turutiarekin; Iñaxio Ibarrondo, *Plazakua*, tanborrarekin; Tomas Uribeetxbarria, *Santa Marinakua*; Iñaxio Olea, *Ordizikua*; Joxe Luis Blaín, *Kanpantzokua*; Luis Mari Isasmendi, *azkoiittiarra*; Iñaxio Oroben-goa, *naparra*; Pako Gómez, *madriddarra*; Felix Elorza, *mondraguetarra*; Jabier Elorza, *araoztarra*; Iñaxio Galdos, *Murgial-dai*; arpegixa ikusten etxakon bat; Joxe Antonio Gimeno, *naparra*; eta Felix Kortabarria, *Kale Zaharrekua*, saxofoiarekin.


Atzekaldian somaitten diran belarri haundixak **belena** edo **jaiotzia** tiraketen eben astuarenak dira.

J. E.

Argazkia Tomas Uribeetxbarriak bialdu dosku eta argibidiak
Tomasenak berarenak eta Karlos Anduagarenak dira.

Oharra: Orain hurrenguan Kale Zaharreko gasoliñeria Oñatioko zaharrena ete zan bota geben. Joxe Mari Urzelairi esker badakigu lehentxuago izan zala beste surtidore bat Lukaseneko kantioan, orain Kutxa daguen ertz horretan.

OÑATI
Hormigoiak, S.A.



Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12
OÑATI